

2018KO IRAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2018ko irailaren 27an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)

EAJ-PNV taldeko zinegotzi hau ez da bertaratu: JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2018KO ABUZTUAREN 23AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2018ko abuztuaren 23an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietatik akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

243/2018.- Txosna bat esleitzeko ebazpena.

244/2018.- Txosna bat esleitzeko ebazpena.

245/2018.- Txosna bat esleitzeko ebazpena.

246/2018.- Txosna bat esleitzeko ebazpena.

247/2018.- “U.T.E. BAKIO KIROLA”ri egindako agin-deia, eskatutako dokumentazioa aurkezteko eta kanona ordaintzeko.

248/2018.- Beste garaje plaza bat esleitzea behin-behinean.

249/2018.- Obligazioen ordainketa onartzea.

250/2018.- Kredituaren 9. aldarazpena.

251/2018.- Ostalaritzako establezimenduen ordutegia zabaltzea.

252/2018.- RUGBY SEVEN TOUCH ekitaldia antolatzekeo baimena.

253/2018.- 192/2018 dekretuaren bidez emondako baimena datorren irailaren 30era arte luzatzea.

254/2018.- Nominak ordaintzeko ebazpena.

255/2018.- Sare feministaren pankarta bat jartzeko baimena.

256/2018.- Bakean paella txapelketa egiteko baimena.

257/2018.- Bakean koadrila eguna ospatzeko baimena.

258/2018.- Txosnetan DJa iminteko baimena.

259/2018.- Informazino mahai bat iminteko baimean.

260/2018.- Kontratu txikia esleitzeko ebazpena.

261/2018.- Obligazioen ordainketa onartzea.

262/2018.- Andra Mari egiteko baimena.

263/2018.- Obligazioen ordainketa onartzea.

264/2018.- Obligazioen ordainketa onartzea.

265/2018.- 249/2018.- Obligazioen ordainketa onartzea.

266/2018.- Obligazioen ordainketa onartzea.

267/2018.- Ezkontzarako ahalmenak emotea.

268/2018.- Kultur Etxeko gelea erabilteko baimena.

269/2018.- Autotaxiaren lizentziaren titularrari baimena emotea zerbitzua beste kotxe batez egiteko.

270/2018.- Alegazioen ganean egindako txostena onartzea.

271/2018.- Errendamentu kontratua Canon enpreseagaz.

272/2018.- Zerbitzuen kontratu txiki bat esleitzea.

273/2018.- Kultur Etxeko gela bat erabilteko baimena.

Amets Jauregizar alkate andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

247/2018 dekretua.

“U.T.E. BAKIO KIROLA” enpreari bost egun balioduneko epea emotea, batetik, kiroldegiaren erabiltzaileen zerrendea bialtzeko eta udalari zor deutzon 6.428,62 euroko kanona ordaintzeko, bai eta 2018ko abuztu eta abendura arteko erabiltzaileen diru-sarrerak ordaintzeko.

250/2018 dekretua:

**KREDITUAK GAITZEKO PROPOSAMENA
KREDITUAK GAITZEKO ESPEDIENTEA OSATZEN DUTEN SARRERA
KONTZEPTUAK ETA GASTU PARTIDAK**

Sarrereren egoera

Kredituen gaikuntza finantzatzen duten sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
780.01	Famili kapitalaren transf.	0,00 €	17.021,81 €	17.021,81 €
		0,00 €	17.021,81 €	17.021,81 €

Gastuen egoera

Proposatutako kreditu gaikuntzek honako aurrekontu partidei eragiten diete:

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
1532.601.00.05	Lafitako malda	0,00 €	17.021,81 €	17.021,81 €
		0,00 €	17.021,81 €	17.021,81 €

260/2018

Beharrezkoa da kalean itxitako txakurren jarraipen lana egitea, udalerrriaren irudi onari eusteko garbitasunaren, osasunaren eta osasungarritasun publikoaren aldetik eta animalien osasuna be jagoteko.

Beraz, beharrezkotzat jotzen da abandonatutako txakurrak batzeko eta txakurtegi batera eroateko zerbitzua kontratatzea. Ganera, enpresea txakurraren jaubeari deitzeaz be arduratuko da.

Animaliak batzeko zerbitzua hastea preminazkoa dan ezkeru eta zerbitzuaren adjudikazino prozedura izapidetzeko aukerarik izan ez dan ezkeru zeregin administratiboen pilaketagaitik, *Centro Canino Quincocan S.L.* enpresearen proposamena jaso da, batzeko eta txakurtegian egoteko zerbitzuak, albaitaritzaren eta albaitaritza osagarriaren zerbitzua eta bestelakoak emoten dauzena; proposamenean, ganera, kobraten diran tarifak agiri dira.

- Adjudikatutako zereginen baldintza agiria onartzea.
- Zerbitzuaren iraupena: 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra.
- Gastua udal aurrekontuaren gastuen 9202270118 partidaren kontura ezartzea. Era berean, Bakioko Udalak 2019ko ekitaldian beharrezko kreditua erreserbatzeko konpromisoa hartzen dau, zerbitzua emon ahal izateko.

272/2018

Bakioko Udalaren 2019ko aurrekontua herritarrekin batera eztabaidatu eta erabakitzeko prozesua ahalik eta modu eramangarriagoan garatzeko, uste da garrantzitsua dela gai horretan aditua den enpresa baten lankidetzaz izatea.

Beraz, hauxe erabagi da: Aztiker Koop.Elk.Txikia enpreari zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzea, betiere, horrek aurkeztutako proposamenaren arabera, 2019ko ekitaldiari dagokionez, Partaidetza Aurrekontuak garatzeko prozesua kudeatzeko eta dinamizatzeko aholkularitza tekniko zerbitzua emateko.

- **Burutzapen epea: 2018ko iraila eta 2019ko urtarrila bitartean.**
- **Aurrekontua: 14.910 euro gehi BEZ (%21), guztira 18.041.10**
- **Gastua egitea 2018ko udal aurrekontuaren gastuen orriaren 334 2260611 partidaren pentzura.**

3.- 2018KO EKITALDIARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON, BIGARREN HIRUHILEKOARI JAGOKONEZ.

Aitatutako gaia dala-eta zinegotziek horrerri buruzko agiria daukien ezkerro, horren barri emon da, beste barik.

4.- BIGARREN HIRUHILEKOARI JAGOKOZAN BATEZ BESTEKO ORDAINKETA EPEAREN ETA 2018KO 31. BERANKORTASUN TXOSTENAREN BARRI EMOTEA.

5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua arabera, diruzainek edo kontu-hartzaileek hiru hilabetetik hiruhilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoerea zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2018ko uztailaren 25ean berankortasun txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia

modura hartuta 2018ko bigarren hiruhilekoari jagokon berankortasuneran datuak honeexek dira, beti be bertan azaltzen danaren arabera:

HIRUHILEKOAN EGINDAKO ORDAINKETAK	
<i>Ordaindu diranak legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaindu diranak legezko epe barruan</i>
303.872,74€	312 ordainketa kopuru
<i>Ordaindu diranak legezko epeetik kanpora</i>	<i>Ordaindu diranak legezko epe kanpora</i>
31.344,38 €	18 ordainketa kopuru

HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO DAUDENAK	
<i>Ordaintzeko legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaintzeko legezko epeetik kanpo</i>
179.170,11 €	34.795,03 €

Horreei buruzko datuak txosten horri erantsitako zerrendan agiri da.

Horrezaz gain, 2018ko bigarren hiruhilekoari jagokozan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea haxe izan da: 5,07 egun.

Zinegotziak horren guztiorren jakinaren ganean geratu dira.

5.- 2018KO UDAL AURREKONTUAREN ALDARAZPENAREN 10. ESPEDIENTEA ONARTU, KREDITUEN TRANSFERENTZIAREN MODALIDADEAN, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkate andreak, aldarazpenaren nondik norakoa azaldu dau, espedientearen edukia haxe izanik:

KREDITUAK TRANSFERITZEKO PROPOSAMENA

Kredituak transferitzen diren gastu partidak (bajak)

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak/g utxitzeak	Behin betikoak
160.623.00.01	MAKINERIA	41.335,67 €	41.335,67 €	0,00 €
		41.335,67 €	41.335,67 €	0,00 €

Handitzen diren kredituen gastu partidak (altak)

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
231.480.00.06	Trans. Ctes IBI	0,00 €	5.000,00 €	5.000,00 €
163.203.00.02	Renting Barredora	0,00 €	36.335,67 €	36.335,67 €
		0,00 €	41.335,67 €	41.335,67 €

Amets Jauregizar alkate andreak, aldarazpen horrerri buruzko azalpenak emon dauzan ezkerro, bai eta informazino batzordean aztertu dan ezkerro be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **2018 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 10. aldarazpen espedientea onartzea, beti be kreditu transferentziaren modalidadean**

6.- BAKIOKO TRIBUTUAK ORDAINTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA, PREMINA HANDIA DAUKIEN PERTSONEI ZUZENDUTA, BETI BE BAKIOKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAK EZARRITAKOAREN ITZALPEAN.

Aurrekariak:

Bakioko Udalbatzak, 2017ko martiaren 30ean egindako bilkuran, 2017, 2018 eta 2019. urteetarako Bakioko diru-laguntzen Plan estrategikoa onartu eban, eta plan hori 2017ko apirilaren 5eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Horren ostean, Bakioko Udalbatzak, 2017ko martiaren 30ean egindako bilkuran, araudia hau onartu eban: premia larrian dagozan pertsoneri Bakioko udal zergak ordaintzeko laguntzak. Araudia 2018ko urtarrilaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Horren harira, ona dakarguna da Bakioko tributua ordaintzeko laguntzen deialdia onartzea, beti be premia handia daukien pertsoneri zuzenduta, horren edukia hauxe izanik:

“BAKIOKO TRIBUTUAK ORDAINTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA, PREMIA EGOERA BEREZETAN DAUDEN PERTSONEI ZUZENDUTA.

Toki Araubideko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bere 25. artikulua e) letran udalerriei esleitzen dizkie gizarte zerbitzuak emateko eta gizarteratzeko arloko eskumenak, betiere goragoko mailako arautegiaren barruan. Eskumen horiek egikaritzu, BAKIOKO UDALAK berebiziko interesa dauka zenbait kolektiboaren gizarte baldintzak hobetzen laguntzeko.

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean zehaztutakoaren arabera, Bakioko Udalak 2017ko martxoaren 30eko osoko bilkuran 2016-2019ko DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA onartu zuen (argitara eman zen 2017ko apirilaren 25eko BAOn, 78. alean), betiere gizarte ekintzaren barnean honakoa jarduketa jasoz: udalerrian garapen ekonomiko eta gizarte ongizate txikiagoko maila duten herritarrekiko elkartasuna sustatzera zuzendutako jarduketa, hain zuzen; era berean, diru-laguntza emateko prozedura gisa norgehiagoka ezarri zen.

Horretan oinarri hartuz, premia egoera berezian dauden UDALERRIKO pertsonen ondoren adieraziko diren tributuak ordaintzen laguntzeko arategi hau onartu da.

1. ARTIKULUA.- EDUKIA ETA XEDEA

Araategi honek arautzen dituen laguntzek xedetzat dute BAKIO UDALERRIKO biztanle premiadunen sostengu ekonomikoari laguntzea, ohiko ingurunean jarraitzea ahalbidetzeko, deserrotze egoerak saihestuz.

2. ARTIKULUA.- HARTZAILEAK

Diru-laguntzak jaso ahalko dituzte baliabide ekonomiko urriak dituzten BAKIOko bizilekuek, baldin eta haien kideak BAKIO UDALERRIAN bizi badira eta bertan erroldaturik badaude eta hurrengo artikuluek ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. ARTIKULUA.- ZUZKIDURA

Laguntza hauen zuzkidura orokorra 2018ko ekitaldiko udal aurrekontu orokorrean ezarritakoa izango da (231 480 0006 partida, 5.000,00 eurokoa).

4. ARTIKULUA.- ZENBATEKOA

Onuradun bakoitzak jasoko duen zenbatekoa honakoa izango da: deialdia argitaratzen den ekitaldian sortzen diren eta bizilekua zamatzen duten tributuen zenbatekoaren %50ekoa.

Araategi honen ondorioetarako, bizilekua zamatzen dutenak honakoak dira: ondasun higiezinaren gaineko zerga, baldin eta ohiko bizilekua bada.

5. ARTIKULUA.- BALDINTZAK

Diru-laguntza jaso ahal izateko, honako baldintza hauek guztiak bete beharko dira aldi berean:

- 1.- Laguntza eskatua izan den tributuarien titularra BAKIO udalerrian erroldaturik egotea.
- 2.- Familiarteko errentaren estandarizazio sistemari buruzko Eusko Jaurlaritzaren 31/2015 Dekretuaren arabera kalkulaturako bizilekuaren sarrera guztiek ez gairatzea indarrean dagoen urteko Lanbide-arteko Gutxieneko Soldata (LGS) 14 hilekorako bider 1,5.
- 3.- LGSren halako 3,5etik gorako balioa izango duen ondasunik, finantza aktiborik edo jabetzarik ez izatea, betiere ohiko bizilekua bazter utzita.
- 4.- Gorago aipatu diren eta urtean diru-laguntza eskatu duenari sortu zaizkion tributuen ordainagiriak bizilekua osatzen duten kideetarik baten izenean egotea.

- 5.- Bizilekuko kide bakar batek ere eskubiderik ez izatea ohikoa ez denaz bestaldeko etxebizitzaren batean.
- 6.- Lehenago ere diru-laguntzaren xede diren ordainagiriaren kuotak ordaindu izana.
- 7.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak ezarritakoaren arabera, laguntza hauen onuradunek beterik izan beharko dituzte BAKIOKO UDALAREN toki ogasunarekiko betebeharrak, betiere laguntzak emateko ebazpena eman aurretik. Ondorio horietarako, hori betetzen dela ulertuko da borondatezko epean mugaeguneratu den eta ordaindu ez den zorrik ez badago edo zor hori atzeratzeko edo zatitzeko ordainketa plan bati loturik badago udalaren diru bilketan eta horretan ez-betetzetik egon gabe.

Arautegi honetan eskatutako betekizunak egiaztatzeko, eskatzaileak udal administrazioari baimena eman beharko dio besteei beharrezko informazioa eskatzeko eskaeraren unean aurkeztutako dokumentazioari buruz.

6. ARTIKULUA.- LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Laguntzaren ordainketa banku transferentzia bitartez egingo da.

7. ARTIKULUA.- DEIALDI PUBLIKOA ETA ESKAERAK

Aurkezpen epea: urriaren 15etik azaroaren 30era bitartean.

Tokia: Bakioko Udala.

Eskaerak bizileku bakoitzeko egingo dira eta eskatzaile batek egin beharko du, betiere tributuak bizilekuko kide desberdinen izenean ager daitezkeela bazter utzita.

Eskatzaileak subjektu pasiboak identifikatu beharko ditu, bai eta titulartasunean dituzten tributuak ere.

8. ARTIKULUA.- EBAZPENA

Aurkeztutako eskaerak ikusita, zehaztuko da zeintzuk diren laguntza eta haren zenbatekoa jasotzeko eskubidea duten eskatzaileak, baldintzak betetzen badituzte. Gauzak horrela, udalbatzak hartu beharko du ebazpena.

Eskaerak ebatzi beharko dira egiten direnetik hiru hilabeteko epean eta jakinaraziko dira administrazio erkideari buruzko prozedura arautzen duen arautegiak ezarri bezala. Epe horren barruan ebatzen ez diren eskaerak ezetsi direla ulertuko da.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren kontra interesdunek berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahalko dute hilabeteko epean edo administrazioarekiko auzi errekurtsioa edo haien interesak defendatzeko komenigarritzat jotzen dituztenak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Alkatetza berariaz gaitzen da arautegi hau betearaztean sor daitezkeen gaiak ebazteko.”

Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **Bakioko tributuak ordaintzeko laguntzen deialdia onartzea, premia**

handia daukien pertsoneri zuzenduta, beti be Bakioko Diru-laguntzen Plan Estrategikoak ezarritakoaren itzalpean.

7.- IRISGARRITASUN PLANA ONARTU

Atoan, Amets Jauregizar alkate andreak hauxe adierazo dau:

Gaur egun Bakiok 2003an idatzitako irisgarritasun plana dauka. Plan horrek ez dauka indarririk atal askotan, batetik azken hamarkada biotan izandako hazkunde urbanistikoaren ondorioz, eta, bereziki ez dauka indarririk bide publikoari jagokoan ataletan, desegokitzapen argia dagoalako plan zahar horren eta HAPOn aurrerapen agiriak herriaren erdigunerako proposatutako planteamenduaren artean. Halanda ze, irisgarritasun plan barria behar da, aurrerago mugikortasuna berrantolatzeke planaren bidez osotua izango dana. Hori eginda, ikuspegi zabalagoa eukiko dogu.

Horrenbestez, irisgarritasun plan barria onartuta, egitasmo hori erabili ahalko dogu antolamendu eta mugikortasunerako gida integral modura, beti be abenduaren 4ko 20/1997 Legeak eta haren garapen arauak ezarritako irisgarritasun baldintzetara egokitzeko. Azkenik, plana herriko irisgarritasuna hobetzeko obretan inbertitzen hasteko oinarria izango da.

Gaia informazino batzordean aztertu dala kontuan hartuz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **Bakioko irisgarritasun plana onartzea.**

8.- SR4-SOLOZARREKO EREMUA URBANIZATZEKO URIGINTZA HITZARMENA BEHIN BETIKO ONARTU, JOSEBA BILBAO ABIOK ETA XABIER GOITIA GARAYK AURKEZTUTAKO ALEGAZINOAK EBATZI OSTEAN, HALA BEHAR BALITZ.

Unai San Martín Martínez, Inés Bilbao-Goyoaga Barturen, Lander Momotio Mardones, eta Estíbaliz Jimenez Romero jaun-andreek 2018ko bagilaren 18an (sarrera erregistroa 1117.a) hitzarmen urbanistikoa aurkeztu dabe “Solozarre” SR4 Sektorea urbanizatzeko obren behin betiko burutzapena ahalbidetzeko eta sektore horretako konpentsazino proiektuaren 8. lursaila eregiteko.

Solozarreko sektorean egin beharreko urbanizazino obren aurrekontua jasoten dauen udal aparejadore aholkulariaren 2018ko bagilaren 20ko txosten teknikoa eta udal iadzkariaren 2018ko bagilaren 21eko txostena espedienteari erantsi ostean, udalbatzak, 2018ko bagilaren 28an egindako osoko bilkuran, hasikera batean onartu eban hitzarmen hori eta jendaurreko informazioaldian imintea erabagi eban 20 egun balioduneko epean, Eusko Jaurlaritzaren Lurzoru eta Urigintzari buruzko bagilaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriaren 8. paragrafoan ezarritakoagaz bat etorritz; informazino publiko hori halantxe emon zan eta horretarako beharrezko iragarkiak imini

ziran 2018.07.17ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, ediktuen udal oholtzan eta udalaren webgunean.

Informazino publikoaren fasean alegazino idatzi bi aurkeztu ziran, honako pertsona hauek aurkeztutakoak:

Joseba Bilbao Abio
Xabier Goitia Garay

Hitzarmenaren sustatzaileei entzunaldiaren izapidea emonda (Unai San Martín Martínez y otros), honeek 2018ko irailaren 4an beste alegazino idatzi bat aurkeztu eben, Joseba Bilbao eta Xabier Goitia jaunek aurkeztutakoak ikusita.

Horren ostean, udal aholkulari juridikoak 2019ko irailaren 19an txostena prestatu eban, Joseba Bilbaok eta Xabier Goitiak eta hitzarmenaren sustatzaileek aurkeztutako idatziei egokenez.

Dokumentazino hori guztia ikusita, udal idazkariak txotena prestatu eban 2018ko irailaren 24an.

2018.09.19ko udal aholkularitza juridikoaren eta 2018.09.24ko udal idazkariaren txostenak ikusita, hitzarmena onartzea proposatu da informazino publikoan imitako eduki berberagaz, baina, argipen bat eginda, Izan be, agiriaren bederatzigarren aurrerakinaren lehen paragrafoan jasotako esaldia (*“el presente convenio tiene por objeto regular las obligaciones y condiciones marco para posibilitar la ejecución definitiva de las obras de urbanización del Sector SR4”*) honela ulertu behar da *“el presente convenio tiene por objeto regular las obligaciones y condiciones marco para permitir avanzar en la ejecución del Sector SR4”*; halanda ze, horrela idatzi beharko da onartu beharreko behin betiko agirian.

Beraz, Toki Araubideko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua ezarritakoarekin bat etorritik, bertaratutako zinegotzien aho batez (korporazinoa osatzen daben 11etatik 10en aldeko botoakaz), honakoa erabagi da:

LEHENENA.- Xabier Goitia Garay eta Joseba Bilbao Garay jaunek aurkeztutako alegazinoak ezestea.

BIGARRENA.- Bakioko Udalaren eta Bakioko Antolamendurako Arau Subsidiarioetako Solozarre Sektoreko Plan Partzilaren 8. lursileko jaubeen arteko hitzarmena behin betiko onartzea, beti be jendaurreko informazinoaldian ezarritakoaren arabera, horren barruan alkatetzak hitzarmenaren bederatzigarren aurrekariaren lehen paragrafoaren ganean egindako proposamena sartuta.

HIRUGARRENA.- Interesdun guztiei erabagi honen barri emotea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren iragarki taulan argitaratzea.

9.- SOLOZARRE-SR.4 EGOITZAZKO EREMUAREN URBANIZAZIO PUBLIKOAREN ALDARAZPEN PARTZIALA HASIERA BATEN ONESTEA.

Alkatetzak, 2006ko zezeilaren 8an, Solozarre-SR.4 egoitzazko eremu urbanizagarriaren urbanizazio proiektua behin betiko onartu eban.

Urbanizazio obrak, gaur egun, amaitzeko dagozala kontuan izanik, amaiera hori bideratzeko proiektu horren aldarazpen partziala onartu da; izan be, aldarazpena *Inforlur Ingenieritza S.L.* enpresek idatzi dau, udalaren ekimenez.

Zinegotziek proiektuari buruzko informazioa daukiela kontuan hartuz, bai eta espedientean dagoan dokumentazioa be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Solozarre-SR.4 egoitzazko eremuaren urbanizazio publikoaren aldarazpen partziala hasiera baten onestea.

2.- Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 196. artikulua arabera, aldarazpena 20 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea, interesatuek aztertu eta alegazioak egin ditzaten, horren barri emoteko, bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, bai egunkari baten, bai eta herriko taulan be iragarkiak ipiniz..

10.- ZERBITZUAK EMOTEARREN EDO JARDUERAK EGITEARREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DAUZEN ORDENANTZEAREN ERANSKINAREN ALDARAZPEN HASIKERA BATEN ONARTU.

Zerbitzuak ematearren edo jarduerak egitearren prezio publikoak eta euron Ordenantza arautzailea, Bakioko Udalbatzak 2013ko urtarrilaren 31n onartu ebazan. Horren ostean, aldarazpen bi onartu ziran, bata, 2017ko urriaren 26an, eta, bestea, 2018ko apirilaren 12an.

Batzar honetako espedienteari jagokonez, helburua ordenantzaren eranskinean prezio publiko honek txertatzea da, Amets Jauregizar alkate andreak esan dauan modura:

Ekitaldiak, entzunaldiak, emanaldiak:

Nagusientzako sarrerak: 8 euro

Adin txikikoentzako sarrerak: 5 euro

Zinegotziek tramitatutako espedientearen ganean jakitun diran ezker, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Zerbitzuak ematearren edo jarduerak egitearren prezio publikoak arautzen dauzen ordenantzearen eranskinaren aldarazpena hasikera baten onartu.

2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da eta aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta biharamunean indarrean sartu eta aplikatuko da.

11.- UDAL KIROLDEGIAN ANTOLATU ETA GARATZEN DIRAN KIROL JARDUERETAN IZENA EMOTEAGAITIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DAUZAN ORDENANTZEAREN ERANSKINAREN ALDARAZPENA HASIKERA BATEN ONARTU.

Bakioko Udalbatzak, 2016ko irailaren 22an egindako osoko bilkuran, kiroldegiko prezio publikoak eta eurok arautzen dauzan ordenantzea onartu ebazan. Harrezkero, Bakioko Udalbatzak, 2017ko martiaren 30ean egindako osoko bilkuran, lehenengo aldarazpena onartu eban.

Hori horrela izanik, oraingo espedienteari jagokonez, ordenantzearen eranskinean aldarazpenak sartzea proposatzen da, espedientean agertzen dan lez.

Zinegotziak espedientean jasoten dan aldarazpenaren edukinaren jakitun diran ezker, eta informazino batzordean gaia landu dala kontuan hartuz be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Udal kiroldegian antolatu eta garatzen diran kirol jardueretan izena emoteagaitiko prezio publikoak arautzen dauzan ordenantzearen eranskinaren aldarazpena hasikera baten onartu.

2.- Aldarazpenaren espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta biharamunean indarrean sartuko da.

12.- HORNIKUNTZA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONESTEA ESKOBATZEKO MAKINA BATEN ERRENTAMENTUAREN BITARTEZ, BETI BE ADMINISTRAZINO KLAUSULEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK BARRUAN DIRALA.

Zinegotziak jakitun dira Bakioko Udalak kalea garbitzeko makina bat eskuratzeko premina daukala, udalak berena den makinarik ez daukalako. Izan be, udal lantaldeak erabiltzen dauan makina aurtengo zemendiaren amaieraraino alokairuan hartutako da. Hori dala eta,

kalea garbitzeko makina bost urterako errentan hartzeko kontratazioa bideratzeko espedienteari hasikerea emotea erabagi da, zemendiaren 8ko 9/2017ko Sektore Publikoko Kontratua aplikatuz.

Beraz, espedienteko dokumentazioa ikusirik eta bertan jasoten danaren arabera, eta zemendiaren 8ko 9/2017 legegintzako errege-dekretuak onartutako Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 117. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera, Udalaren Osoko Bilkurak, zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau

1.- Hornikuntza kontratuari jagokonez, kaleak garbitzeko makina errentan hartzeko esleipen prozedurari hasikerea emotea, bai eta kontratazio espedientea onartzea be, kontratua eraenduko daben Administrazio Klausula Zehatzen eta Baldintza Teknikoen Orriak barruan dirala, kontuan izanik 2018ko ekitaldiko udal aurrekontuaren gastuen orriaren 1632030002 partidan gastuei aurre egiteko ordainketa kreditua zainpetuta dagoela, bai eta hurrengo ekitaldietako udal aurrekontuetako gastuen orrian behar dan zenbateko zainpetzeko konpromisoa hartzen dala be.

Lizitazioaren aurrekontua oinarria 175.450,00 € da, BEZ barruan dala:

Ibilgailua	Hileko zenbatekoa	kontratua guztira(€), BEZ barik
1	2.416,66 €	145.000.00 €

Lizitazio oinarriaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak

	Urteko prezioa (BEZ barik)	Urteko prezioa (BEZagaz)
Kontratuaren 1. urtea	29.000,00 €	35.090,00€
Kontratuaren 2. urtea	29.000,00 €	35.090,00 €
Kontratuaren 3. urtea	29.000,00 €	35.090,00 €
Kontratuaren 4. urtea	29.000,00 €	35.090,00 €
Kontratuaren 5. urtea	29.000,00 €	35.090,00 €
Guztira	145.000,00 €	175.450,00 €

2.- Gauzak horrela, adjudikazioa prozedura irekiaren bidez izapidetuko da.

3.- Adjudikazio prozedurari hasikera emotea.

13.- SAREK AURKEZTUTAKO IDATZIA ONARTU. HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkate andreak, SAREk aurkeztutako idatzia irakurri dau, edukia hauxe izanik:

Pasa den apirilaren 18an Arabako Batzar Nagusiak presoan urrunketa politikarekiko ezadostasuna azaltzen zuen mozioa onartu zuen. Hitzarmen honekin Euskal Autonomi Erkidegoko hiru Batzar Nagusien akordiora iristen gara, 2016ko abenduaren 14ean Gipuzkoan eta 2017ko ekainaren 7an Bizkaian onartutakoen ondoren. Egun berean, aho batez onetsi zuten Euskal Autonomi Erkidegoko sindikatuek: ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK, Steilas, EHNE, Hiru eta Etxalde. Gure udalerrian, egun, preso daudenak hauek dira:

Manex Castro Zabaleta. CP Puerto III -Puerto Santamaría- (etxetik 1050kmra)

Jon Igor Solana Matarran. CP Botafuego –Algeciras- (etxetik 1100kmra)

Ondorioz, udalbatzak honakoa onartzea dugu helburu: Lege Orokorrean askatasuna kentzeko zigorrak betetzean deserrotzea saihesteko ezarritakoa kontuan izanik, zigor horien bergizarteratze printzipioen arabera, adierazten dute ez daudela ados urruntze espetze politikarekin. Alde horretatik, ETAREN indarkeriaren behin betiko etenak irekitako garai berriaren barruan, uste dute espetxepolitika berri bat behar dela, hain zuzen ere presoak zigorrak gizarte- eta familia-erroak dituen lekutik urrun betetzea saihesten duen politika bat, zeinak erraztuko baitu bere senideekin harremana izatea, bere semealaba adingabeen ongizatera begira eta horiek gurasoekin egoteko duten eskubidearen alde.

Zinegotziak idatzi horren jakinaren ganean egonik, Udalaren Osoko Bilkurak, HB-Bildu taldea osotzen daben lau zinegotzien (Amets Jauregizar, Maria Isabel Barturen, Egoitz Abio eta Aitor Ibarzabal) eta EAJ-PNV taldeko Aitor Apraiz, Iker Muruaga, Maria Begoña Abio eta José Luis Urrutia zinegotzien aldeko botoakaz, korporazioa legez osotzen duten gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, hauxe erabagi dau:

SAREk aurkeztutako idatzia berena egitea, eta, horrenbestez, bertan dakarrena onartzea.

BakioBai taldeko Alain Gómez Muruaga eta Josu Garai Vara zinegotziak abstenidu egin dira, arrazoiak hauxe izanik: orain arte be, adierazo daben modura euren eginkizuna herriko zereginetan parte hartzea da, eta ez kutsu politikoa daukien erabagietan.

14.- AURREKONTU PARTE-HARTZAILEEN KONPROMISO POLITIKOA ONARTZEA.

Aurrekontu parte-hartzaileen konpromiso politikoaren ganean EH Bildu taldeak — Bakiobai taldearen adostasunez — aurkeztutako idatzia eztabaidatu egin da, EAJ-PNV taldeak ñabardura batzuk egin beharra adierazokeran. Eztabaidaren ondorioz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), konpromiso horren mamina hauxe izatea erabagi dau:

Honakoa da Bakioko Udala osatzen dugun alderdien konpromiso politikoa 2019ko aurrekontu partehartzaileen aurrean:

1.- Prozesua erabakitzailea izango da. Berme batzordeak erabakitzen duen baldintzak errespetatuz, herritarrek erabakitzen dutena osoko bilkuran onartzeko konpromisoa hartzen dugu.

2.- 2019ko Udal Aurrekontuetatik prozesu honetan erabakiko den zenbatekoa definitu eta jakinaraziko da. Halaber, udal aurrekontuak berezkoak dituen partiden berri emango da. Udaletxearen lana eta abian dauden prozesu desberdinak bermatzeko beharrezko partidak zeintzuk diren azalduko da. Partida hauek aurrekontuan txertatuko dira parte hartze dinamiketarik kanpo geldituz.

3.- Herritarren proposamenak bat etorri behar dira “Bakioko posizionamendu estrategikoaren oinarriak” izeneko dokumentuarekin.

4.- Prozesu parte hartzailearen helburua, herritarren iritzi eta proposamenak erdigunean jartzea denez, zinegotziok beste herritarrek bezala, dinamiketan parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu. Alderdi bakoitzeko zinegotziok leku bana izango dugu sortuko den berme taldean.

5.- Udal ordezkariok Berme Taldeari prozesuaren ikuskaritza eta gidaritza osoa egiteko zilegitasuna aitortzen diogu.

6.- 2019an aurrekontu parte hartzailearen betearazpenaren jarraipena egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Prozesuaren helburu nagusietakoa da herritarren partaidetza kultura sustatzea, partaidetzan hezten joatea eta herritarren eta udalaren artean gertutasuna bultzatzea. Hori dela eta, prozesuaren erronketako bat izango da bakiotarren %5arekin lan egitea prozesuan zehar.

Dokumentua sinatzen dugunok partaidetza prozesuaren emaitzak Udal Plenoan aurkezteko konpromisoa hartzen dugu.

15.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Begoña Abio zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean hauxe adierazo dau: Udalbatzak, 2018.07.26an egindako bileran, konpromiso hau hartu ebala: 2018. urtea amaitu baino lehen egitea txostena honeri buruz: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016ko Legearen VI. tituluaren aurreikuspenak eta bereziki bere II. kapituluan txertatuta dagozan 50. artikulua eta hurrengoetan jasotakoari buruzkoa.

Beraz, zinegotzi horrek galdetu dau erabagi hori beteteko beharrak hasi diran.

Amets Jauregizar alkate andreak dinotso konpromiso hori hor dagoala baina udalean abuztuan eta irailean behar asko pilatu dan ezker, astirik ez dala egon konpromiso

horreri behar dauan arreta eskaintzeko. Ganera, horretarako enpresa bat kontratau beharko dala, eta, horretarako, aurretiaz aurrekontuak bilatuz.

Amaitzeko, Aitor Apraiz zinegotziak, EAJ-PNVren izenean, haxe kritika dau: Partaidetza Aurrekontuak garatzeko prozesua kudeatzeko eta dinamizatzeko aholkularitza teknikoa *Aztiker Koop.Elk.Txikia* enpreseari adjudikatzeko modua. Hau da, ez da zalantzan jarten, inondik inora be, enpresa horren gaitasuna agindu jakon beharra egiteko, adjudikatzeko orduan beste enpresa batzuen eskaintza jaso ez izana baino, proposamenak konparatzeko aukera izateko. Gardentasunaren aldetik prozedura ez da bidezkoa izan.

Amets Jauregizar alkate andreak dinotso *Aztiker Koop.Elk.Txikia* enpresearen hautaketa ez dala kapritxoa izan. Izan be, enpresa hori kontratau aurretik, partaidetza aurrekonturako aholkularitza beharrak egiteko enpresa bat kontratatu beharrianari buruz Informazino Batzordean berba egin zan-eta.

Alain Gómez zinegotziak, Bakiobai taldearen izenean, dino: egia da Partaidetza Aurrekontuak garatzeko prozesua kudeatzeko eta dinamizatzeko beharra egiteko ez dala aurrekontu gehiagorik eskatu, baina egia be bada horrezaz Informazino Batzordean berba egin zala, eta esan zala Euskal Herriko Unibertsitateko partaideek behar hori legez ezin ebenez egin, gomendatu euskula *Aztiker Koop.Elk.Txikia* enpresea zala egokiena beharra egiteko.

Gaiaren ganean, Amets, Aitor Apraiz eta Alain artean eztabaida izan da.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 20:15ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria